

Enpresagintza Fakultatea

Aktualitatea

Bikain ziurtagiria jaso du Enpresagintza Fakultateak.

2010/11/16

Azaroak 10ean ospatu dugun Kurasaaleko ekitaldian Enpresagintza Fakultateak Bikain ziurtagiria jaso du. Gurekin batera izan dira sarituak baita MUko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko kideak.

Berrogeita lau enpresa eta erakundek beste horrenbeste Bikain ziurtagiri jaso zituzten ekitaldi hortan, Donostiako Kurasaal jauregian egindako ekitaldian, Blanca Urgell Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuaren, Bernabé Unda Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuaren eta Lurdes Auzmendi Hizkuntza Politikarako sailburuordearen eskuetatik.

Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiri ofizial, publiko eta doakoa Eusko Jaurlaritzak ematen du, eta enpresa nahiz erakunde batean euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen ditu.

Ekitaldian banatu ziren ziurtagirien artean, 19 urrezkoak dira, goimailakoak, eta tarteko mailari dagokion zilarrezkoak beste 14.

Gainerakoa 11k oinarrizko maila zirurtatzen dute.

Gure Fakultatearen kasuan urrezko ziurtagiria jaso genuen. Zorionak guztioi eginiko esfortzuarengatik!

